

TOKI-IZENAK ETA ABIZENAK (2N. MOLTZOA)

“Euskerazaintza” aldizkarian XLIX zenbakian argitaratu doguz toki-izenak eta abizenak, 1.º moltzoa, guztiz irureun bat eta gure irakurleen artean arreta aundiaz artuak izan dira. Baiña irureun ez dira ezer ogeta amar milla baiño geiago doguzenean. Orregaitik bigarren moltzo au argitaratzea erabagi dogu.

Zergaitik izan ete dira ain onartuak?

Ona emen ikusten dodazen zio batzuk: Geure jatorria maite dogulako, or gaur galduta dagozan izen asko agertzen diralako, eta ez izenak bakarrik, atzizkiak be asko eta asko gaur galdutzat daukaguzanak. Euskerea ikasteko eta orretan sakontzeko bidea dogu ba au. Esaterako, gaur “uria” izena erderazko “villa” esateko baiño ez dogu erabilten, baiña antxiñako euskeran zerbait geiago be adierazten eban: “Uriarte” izeneko etxea ez dago errien artean, “Uribitarte” ez dago erri biren artean, “Uribarrena” ez dago erri baten barrenean, edo Urigoien, Uribarri, Urizar, Urioste... Bardin esan bear “zar” itzi orreri begira, eta abar.

Irakurleen egarri ori asetzeko, bejoa moltzo barri au, bigarrena, eta abizen bakotxean itzaren jatorria eta non edo noz lenengoz agertzen dan azalduko dogu, edo etxea non dagon.



Oarra: Oraitsu itaundu dauste “Oyorta” euren etxean izenak zer esan nai dauan.

Itz ori ez dot aurkitu abizenen artean, baiña nire ustez auxa da jatorria: “Goi-Gorta”. Bean egoan etxea, goian abereak eukiteko zelaia edo etxea, gortea edo kortabaso: “Goi-Gorta/Goyorta”.



Abendaño: Erri bat dago Gasteiz ondoan eta abizena Jauntxuen artean agertzen da Arratia’n eta Elorrio’n. Batzuk Galiziatik etorria dala diñoe.

Arandanok dagozan tokia esan nai dau eta Azpeitian agertzen da 1353n. urtean.



Abrisketa: Abarizketa’ren laburpena da eta karraskak edo abalak dagozan tokia esan nai dau.

Basauri’n eta Arrigorriagan agertzen da. Lazkano’n 1618n. urtean.



Atxaga: Atxa dagon tokia esan nai dau, baiña izan daiteke Arizaga’ren laburpena eta au aritxa dagon lekua litzake.

Zumarraga’n daukagu 1478n. urtean.



Atxotegi: “Atso” emakume zarra izan ezkerro, atsoa bizi dan lekua litzake, Mitxelenak diñoanez. Lopez Mendizabal’ek “atxo” sasia dala diño.

Amoroto, Bergara ta Eibar’en agertzen da.



Atxukarro: “Atxu” sasia izanik eta “arro” aldapea, sasiak dagozan aldapan dagoan etxea litzake.

Berastegi’n agertzen da 1759n. urtean.



Atxuri: Atx zuria esan gura dau eta Bilbao’n dago izen orregaz auzo bat, Mungian be bai beste bat. Ubide’tik Gorbeia’ra bidea antzekoa dan “atxurdin” dago.

Bilbao’n agertzen da 1524’an.



Atxutegi edo **Atxotegi:** Emakume zarra bizi dan lekua, diño Mitxelenak, Lopez Mendizabal’ek, oster, sasia dagon lekua.

Mungia eta Aulestia’n dago gaur baiña 1654n. urtean Bilbao’n agertu zan.



Ayesta: “aies” otea da eta izenak orduan otea dagon lekua adierazten dau.

Iruña’n agertzen 1713’an.

Olazar’tar Martin’ek